

FINANTZA-PRODUKTUEN KONTRATU AURREKO INFORMAZIOA,

2019/2088 (EU) ERREGELAMENDUAREN 8. ARTIKULUKO 1, 2 ETA 2BIS APARTATUETAN ETA
2020/852 (EU) ERREGELAMENDUAREN 6. ARTIKULUKO LEHEN PARAGRAFOAN AIPATZEN DIRENENA

LABORAL KUTXA AKTIBO EKI IF

ISINa: ES0183101007

LEI kodea: 5493001YZQGS3ET3RZ39

Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak

Inbertsio jasangarria
egitea ingurumen- edo gizarte-helburu bat lortzen laguntzen duen jarduera ekonomiko batean inbertitzea da, baldin eta inbertsioak ez badio kalte nabarmenik eragiten ezein ingurumen- edo gizarte-helbururi eta inbertsioen xede diren enpresek gobernantza onaren arabera jarduten badute.

EBren taxonomia
2020/852 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako sailkapen-sistema bat da; horretan, ingurumenarekiko jasangarriak diren jarduera ekonomikoaren zerrenda ezarri da. Erregelamendu horrek ez du gizartearekiko jasangarriak diren jarduera ekonomikoaren zerrendarik aurreikusten. Ingurumen-helburua duten inbertsio jasangarriak egokitu daitezke, edo ez, taxonomia horretara.

Finantza-produktu honek badu inbertsio-helburu jasangarririk?

Bai

Ez

Ingurumen-helburua duten inbertsio jasangarrien proportzio hau egingo du gutxienez:

EBren taxonomiaren arabera ingurumenarekiko jasangarriak diren jarduera ekonomikoetan

EBren taxonomiaren arabera ingurumenarekiko jasangarritzat hartu ezin diren jarduera ekonomikoetan

Gizarte-helburu bat duten inbertsio jasangarrien proportzio hau egingo du gutxienez:

Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, eta, inbertsio jasangarria egiteko helburua ez badu ere, inbertsioen % 40 jasangarria izango da gutxienez:

ingurumen-helburu batekin, EBren taxonomiaren arabera ingurumenarekiko jasangarriak diren jarduera ekonomikoetan

ingurumen-helburu batekin, EBren taxonomiaren arabera ingurumenarekiko jasangarritzat hartu ezin diren jarduera ekonomikoetan

gizarte-helburu batekin

Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, baina **ez du inbertsio jasangarririk egingo.**



Zer ingurumen- edo gizarte-ezaugarri sustatzen ditu finantza-produktu honek?

Funtsak ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak sustatuko ditu; izan ere, IGG alderdiak hartzen ditu aintzat, baloreak aztertzean eta zorroa eratzean. Funtsaren ondarearen % 60 gutxienez alderdi horiek sustatzera bideratuko da.

Zehazki, eskusio-estrategia bat erabiltzen du funtsak; horren arabera, baztertu egiten ditu armamentuaren, tabakoaren, jokoaren, helduentzako entretenimenduaren edo giza klonazioaren sektoreetako enpresak. Irizpide horiek funtseko inbertsio guztiei ezarriko zaizkie.

Caja Laboral Gestión SGIIC SAK barne-metodologia bat garatu du IGG rating bat egiteko, kanpoko informazio-hornitzaileen datuetan oinarrituta. Horren arabera, *best-in-class* politika ezarriko da; hau da, balioztapen positiboa emango zaie, sektorean jasagarritasun-puntuaziorik handienak dituzten jaulkitzaileei.

Gainera, EBren 2019/2088 Erregelamenduaren 2.17 artikulua arabera, funtsak inbertsio jasagarrietara bideratuko ditu inbertsioen % 40, gutxienez, eta kalte nabarmenik ez egiteko printzipioa (DNSH) eta gobernantza onerako jardunbideak beteko dituzte inbertsiook.

Dena den, funtsaren inbertsio jasagarriek ez dute laguntzen 2020/852 (EB) Erregelamenduan zehaztutako ingurumen-helburuetan (bereziki, klima-aldaketa arintzeko edo klima-aldaketara egokitzeko helburuetan), eta funtsak ez du inbertitzen Erregelamendu horren arabera taxonomikoak diren jardueretan.

Ez da erreferentziako indizerik hautatu sustatzen diren ingurumen- eta gizarte-alderdiak lortzeko.

● **Zer jasagarritasun-adierazle erabiltzen dira finantza-produktu honek sustatutako ingurumen- edo gizarte-ezaugarri bakoitzaren lorpen-maila neurtzeko?**

Funtsak sustatzen dituen IGG ezaugarriak neurtzeko, monitorizatzeko eta lortzen direla ziurtatzeko, jasagarritasunari eta IGGei lotutako zenbait metrika hartzen dira kontuan. Hauek dira erabilitako funtsezko metrikak:

- Zorroan eskusio-irizpideak betetzen dituen ehunekoak.
- Jaulkitzaile korporatiboen kasuan:
 - Zorroaren batez besteko IGG ratinga 40/100 baino handiagoa izango da. 20/100 baino IGG rating handiagoa izan behar dute enpresek funtsaren inbertsio-unibertsioan sartzeko. IGG ratinga kalkulatzeko metodologiak zenbait jasagarritasun-adierazle uztartzen ditu bere indizea sortzeko —0 eta 100 bitartekoa da indize horren puntuazio-tartea—. IGGen esparruan ospe handia duten kanpoko hornitzaileen datuak erabiltzen dira.
 - Zorroak % 20 inbertituko du, asko jota, zehaztutako atalasetik (20/100) beherako IGG ratinga duten baloreetan. Ehuneko hori kalkulatzeko, zorroan IGG ratinga duten baloreak hartzen dira aintzat.
- Jasagarritasunari buruzko informazioa duten aktiboak zorroaren % 80 izango dira gutxienez, zuzeneko inbertsioko aktiboak (akzioak, errenta

Jasagarritasun-adierazleek finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak nola lortzen diren neurtzen dute.

finko pribatua eta zor publikoa) eta IKEak barne hartuta.

- ***Inbertsio jasagarrien zer helburu lortu nahi ditu, hein batean, finantza-produktuak, eta inbertsio jasagarriak nola laguntzen du helburu horiek lortzen?***

Funtsaren inbertsio jasagarriek ingurumen- eta gizarte-helburu hauek lortu nahi dituzte, besteak beste: berotegi-efektuko gasen isurtzeak gutxitzea, energia-efizientzia lortzea, baliabideak eraginkortasunez kudeatzea eta gizarte osoaren gizarte-ongizatea hobetzea.

Funtsaren inbertsio jasagarriak —2020/852 (EB) Erregelamenduaren 2.17 artikulua arabera— ondoren adierazten diren aktiboetan egingo dira.

- Zuzeneko inbertsioa: errenta finko publikoko eta/edo pribatuko jaulkipenetan inbertituko da, bonu jasagarri, berde edo sozialen artean edo jasagarritasunari lotutako bonuen artean —*sustainability-linked bonds*— sailkatuta badaude; zor publikoaren kasuan, herrialde jaulkitzaileek demokraziak izan behar dute, *The Economist* egunkariaren demokrazia-indizearen arabera.
 - Bonu jasagarriak: ingurumenerako jasagarriak diren proiektuetan erabiltzen dituzte funtsak, eta jarduera berdeak eta sozialak konbinatzen dituzten proiektuak hauta daitezke.
 - Bonu berdeak: klima-aldaketa arintzea nahiz klima-aldaketara egokitzea edo ingurumen-jasagarritasunaren alorreko beste helburu batzuk sustatzen dituzten proiektu edo jarduera berdeetan erabiltzen dituzte funtsak.
 - Bonu sozialak: behartsuak diren, diru-sarrerara txikiak dituzten eta baztertuta edo desabantailan dauden biztanleentzat gizarte-ongizatea eta inpaktu sozial positiboa zuzenean sustatzen dituzten proiektuetan erabiltzen dituzte funtsak.
 - Jasagarritasunari lotutako bonuak (*sustainability-linked bonds*): finantza- eta/edo egitura-ezaugarriak alda dakizkieke, jaulkitzaileak alde zuzeneko zehaztutako jasagarritasuneko edo IGGko helburuak lortzen dituen edo ez kontuan hartuta.
- Zeharkako inbertsioa: 2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan sailkatutako inbertsio jasagarriak helburu dituzten IKE-etan soilik inbertituko da, betiere funtsaren inbertsio jasagarrien helbururen batekin bat badatoz inbertsio-helburu jasagarriok; 2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 8. artikuluan sailkatutako IKE-en zati jasagarria ere kontuan hartuko da.

- ***Finantza-produktuak hein batean egin nahi dituen inbertsio jasagarriek ez diete kalte nabarmenik eragin behar ingurumenarekiko edo gizartearekiko jasagarriak diren inbertsio-helburuei; baina, nola lortzen da hori?***

Inbertsio jasagarriek ingurumenarekiko edo gizartearekiko jasagarriak diren inbertsio-helburuei ez dietela kalte nabarmenik eragiten egiaztatzeko, finantza-

Intzidentzia kaltegarri nagusiak hauek dira: ingurumen-, gizarte- eta lan-gaiekin, giza eskubideen errespetuarekin, eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokarekin lotutako jasagarritasun-faktoreen gaineko inbertsio-erabakien intzidentzia negatiborik handienak.

produktuak jarraipena egiten die 2022/1288 (EB) Erregelamendu Delegatuko erregulazio-arau teknikoan (RTSen) I. eranskineko jasangarritasunaren arloko Intzidentzia Kaltegarri Nagusien adierazlerik behinenei.

Adierazle horiek zenbait epealditan alderatuko dituzte, finantza-produktuaren helburuetan eragin negatiboa duten inbertsioak identifikatzeko.

Sozietate gestoreak bere web-orrialdean argitaratuko ditu finantza-produktu horren gorabehera nagusiak; hona hemen helbidea:

<https://www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aurrezkia/fondoak/nazioarteko-errenta-finko-mistoa/laboral-kutxa-aktibo-eki-fi>

● ***Nola hartu dira kontuan jasangarritasun-faktoreen gaineko intzidentzia kaltegarrien adierazleak?***

Intzidentzia kaltegarriek finantza-produktuaren jasangarritasun-faktoreetan zer inpaktu duten ebaluatzeko, IKNen jarraipena egingo da, *Regulatory Technical Standards* arauen (RTSen) I. eranskineko adierazleen bidez.

Caja Laboral Gestión SGIIC SAK partaidetza-prozesuak ere egiten ditu, identifikatutako ingurumen- eta gizarte-arriskuen estaldura bermatzeko, IGG irizpideak zabaltzeko eta nazioarteko arau edo jokabide-kodeei atxikitzeko, besteak beste. Erakunde gestoreak inplikazio-politika bat du, lortu nahi diren ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak hobeto sustatzeko tresna osagarri gisa. Hauek arautzen ditu politika horrek:

- Erakunde gestorearen inplikazio-prozedura, inbertsioen xede diren konpainietako akziodun gisa.
- Inbertsioen xede diren sozietateen jarraipena, estrategiari, errendimendu finantzario eta ez-finantzarioari, kapital-egiturari, gobernu korporatiboari eta jardueren ingurumen- edo gizarte-inpaktuari dagokienez.
- Sozietateekiko elkarrizketa aktiboa.
- Boto-eskubideen erabilera.
- Inplikazio-jardueren ondoriozko interes-gatazken kudeaketa.

Edonola ere, partaidetza-prozesu horiek kasu honetan egingo dira soilik: partaidetzapeko sozietatearen kapitalaren %1ekoa edo handiagoa bada sozietate gestoreak kudeatutako inbertsio-funtsek kapitalean duten partaidetza.

● ***Nola egokitzen dira inbertsio jasangarriak Multinazionalerako ELGaren Gidalerroetara eta Nazio Batuen Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidarietara? Xehetasunak:***

Funtsak Multinazionalerako ELGaren Gidalerroekin edo Nazio Batuen Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidariekin lerrokatuko ditu bere inbertsioak. Horretarako, ESG datu-hornitzaileak emandako adierazleak erabiliko ditu funtsak.

ESG datu-hornitzaileak emandako informazioa osatu egingo da partaidetzapeko enpresekin elkarrizketa aktiboa izanez, epe luzeko

inplikazio-politikari jarraituz.

EBren taxonomiak «kalte nabarmenik ez sortzeko» printzipioa ezartzen du; horren arabera, taxonomiarekin bat datozen inbertsioek ez diete kalte nabarmenik egin behar EBren taxonomiaren helburuei. Gainera, EBren berariazko irizpideak hartzen ditu barne.

«Kalte nabarmenik ez sortzeko» printzipioa inbertsio hauei baizik ez zaie aplikatzen: finantza-produktuaren azpiko inbertsioetatik EBk ingurumenarekiko jasangarriak diren jarduera ekonomikoetarako ezarri dituen irizpideak kontuan hartzen dituztenei. Finantza-produktuaren gainerako azpiko inbertsioek ez dituzte kontuan hartzen EBk ingurumenarekiko jasangarriak diren ekonomia-jardueretarako ezarritako irizpideak.

Beste inbertsio jasangarriek ere ez die kalte nabarmenik egin behar ezein ingurumen- edo gizarte-helbururi.



Finantza-produktu honek hartzen ditu kontuan jasangarritasun-faktoreen gaineko intzidentzia kaltegarri nagusiak?

Bai

Jasangarritasun-faktoreen gaineko intzidentzia kaltegarri nagusiak neurtzeko, RTSen 1. eranskineko 1. taulan ezarritako nahitaezko adierazleen jarraipena egiten da.

Osagarri gisa, neurtutako adierazle bakoitzak zorroan duen estaldura-portzentajearen jarraipena ere egingo da.

Adierazle horiek zenbait epealditan alderatuko dira, eragin negatiboa duten inbertsioak identifikatzeko.

Ez



Zer inbertsio-estrategia erabiltzen du finantza-produktu honek?

Nazioarteko errenta finko mistoko inbertsio-funtsa da. Finantza-irizpideez gain, IGG irizpide ez-finantzarioak ere erabiltzen ditu, bai baztertzailak (ez du zenbait sektoretan inbertitzen, hala nola armamentuan, tabakoan, jokoan...), bai baloratzekoak (klima-aldaketaren aurkako borroka, giza eskubideen babesa eta gobernantza korporatibo ona duten jaulkitzailak). Ondarearen % 60k baino gehiagok inbertsio-funtsaren jasangarritasun-asmoak betetzen ditu (zuzenean eta zeharka), eta % 40 gutxienez inbertsio jasangarrietan inbertitzen du.

Ondarearen % 0 eta % 100 bitartean jasangarritasun-asmoak betetzen dituzten IKE finantzarioetan inbertitzen du, harmonizatuak izan ala ez eta sozietate gestorearen taldekoak izan ala ez.

Zuzenean edo zeharka, esposizio osoaren % 30 baino gutxiago edozein kapitalizaziotako edo sektoretako errenta aldakorrean inbertitzen du, eta gainerakoa errenta finko publikoan edo pribatuan (barne hartuta diru-merkatuko tresna likido kotizatuak edo

Inbertsio-estrategiak zenbait faktoreen arabera bideratzen ditu inbertsio-erabakiak, hala nola inbertsio-helburuen eta arriskuarekiko tolerantziaren arabera.

kotizatu gabeak, eta % 20 gehienez gordailuetan).

● ***Inbertsio-estrategian zer elementu lotesle erabiltzen dira finantza-produktu honek sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarrietako bakoitza lortzera bideratutako inbertsioak hautatzeko?***

Zuzeneko nahiz zeharkako zorroan, funtsaren jasangarritasun-asmoak hartuko dira kontuan inbertsio-unibertsoa zehazteko, bi irizpide-motaren arabera:

- Irizpide negatiboak. Esklusio-politika bat erabiliko da, jarduera nagusia sektore hauetan duten jaulkitzaileetan inbertitzea saihesteko: armamentua, tabakoa, jokia, helduen entretenimendua eta giza klonazioa.
- Balioztapen-irizpideak. *Best-in-class* politika ezarriko da; hau da, balioztapen positiboa emango zaie jasangarritasun-puntuaziorik handienak dituzten jaulkitzaileei. Arriskuak murrizteko politikak barne hartzen dituzten estrategiak darabiltzaten erakundeak bilatuko dira; hauek dira estrategiak:
 - Ingurumenekoak: CO2-aren isurtzeak murriztea, energia-efizientzia, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta biodibertsitatea babestea.
 - Gizartekoak: giza eskubideak babestea.
 - Gobernantza korporatiboa: enpresetako kudeaketa-organoek politika egokietan parte har dezaten sustatzea, hala nola akziodunen eskubideak (baita akziodun minoritarioenak ere) errespetatzen dituzten, indarrean dagoen araudia betetzen duten, ustelkeria-jarduerak saihesten dituzten eta zerga-arloko jardunbide egokiak sustatzen dituzten politiketan.

Zeharkako inbertsioari dagokionez, funtsaren jasangarritasun-asmoak betetzen dituzten IKEak hautatuko ditu sozietate gestoreak. Ahal dela, 2019/2088 (EB) Erregelamenduan jasangarritzat sailkatutako IKE-etan inbertituko du: edo ingurumen- nahiz gizarte-ezaugarriak —Erregelamendu horren 8. artikuluan sailkatuak— sustatzen dituzten IKE-etan, edo helburutzat inbertsio jasangarriak —Erregelamendu horren 9. artikuluan sailkatuak— dituzten IKE-etan, betiere inbertsio horiek bat badatoz funtsaren jasangarritasun-asmoekin.

Esklusio- zein balioztapen-irizpideak funtsaren zorro osoari (zuzenekoari eta zeharkakoari) aplikatuko zaizkio; zor publikoa izango da salbuespena, horri IGG irizpide hauek ezarriko baitzaizkio:

Zor publikoan egindako inbertsioa (zuzenekoa eta zeharkakoa) demokrazia-indizearen arabera demokraziatzat hartzen diren herrialdeetako gobernuetan egingo da soilik, baldin eta Social Progress Index eta SDG Dashboard indizeen arteko batez besteko kalifikazioa 70 baino handiagoa bada (bi indizeen puntuazio-maila 0 eta 100 artekoa da).

Demokrazia-indizea *The Economist* egunkariko Inteligentzia Unitatearen sailkapen bat da, eta, horren bidez, 167 herrialdeetako demokrazia-maila zehaztu

nahi da. www.eiu.com webgunean kontsulta daiteke.

Social Progress Index indizeak herrialdeek beren herritarren gizarte- eta ingurumen-premiak zenbateraino asetzen dituzten neurtzen du, hiru alderdi nagusitan bildutako 54 adierazleren bidez; hona hemen adierazleok: oinarrizko giza beharrak, oinarrizko ongizatea eta aurrera egiteko aukerak. Social Progress Imperative elkarteak kalkulatu du, eta www.socialprogress.org helbidean kontsulta daiteke.

SDG Dashboard indizeak herrialdeek Nazio Batuen garapen jasangarriko 17 helburuekiko zer portaera duten neurtzen du. Hainbat erakundek kalkulatu dute (Garapen Iraunkorrerako Irtenbideen Sareak, NBERekin elkarlanean), eta www.sdgindex.org webgunean kontsulta daiteke.

Beraz, funtseko posizio guztiek eskusioaren eta balioztapenaren IGG politikak bete behar dituzte, betiere politika horien irismenetik kanpo ez badaude (adibidez, eskudirutan edo eskudiruaren baliokidetan dauden posizioak).

Gestoreak 20/100 baino IGG rating txikiagoa duen aktibo batean inbertitu nahi badu, beharrezkoa izango da Inbertsio Batzordeak inbertsio hori *ex ante* onartzea. Batzorde hori astero biltzen da, eta, bileretan, inbertsio-taldeak eta Arriskuen Gestio Areako eta Araudia Betearazteko Areako ordezkari banak hartzen dute parte. Batzordearen onspena aktan jasoko da, hartutako erabakiaren trazabilitatea egon dadin.

- ***Zein da inbertsio-estrategia hori aplikatu aurretik egin nahi diren inbertsioen zenbatekoa murrizteko konprometitutako gutxieneko ehuneko?***

Ez dago inbertsioen zenbatekoa gutxieneko ehuneko bat murrizteko konpromisorik.

- ***Zer politika erabiltzen da inbertsioen xede diren enpresen gobernantza onaren jardunbideak ebaluatzeko?***

Gobernantza onaren nazioarteko printzipioak betetzen dituzten enpresetan inbertituko da. Informazio hori ESG kanpoko informazio-hornitzaileetatik lortuko da, bai eta partaidetzapeko enprekin gauzatutako elkarrizketa aktiboaren bidez ere.

Inbertsio kolektiboko erakundeetako inbertsioen kasuan, Caja Laboral Gestión SGIIC SAK IKE horien sozietate gestoreen esku utziko du jardunbide egokiak aztertze zeregina.

Gobernantza onaren jardunbideek hauek hartzen dituzte barne: gestio onaren egiturak, langileekiko harremanak, langileen ordainsariak eta betebeharrak fiskalak betetzea.



Zein da finantza-produktu honetarako aurreikusitako aktiboaren esleipena?

Funtsaren inbertsioen % 60k gutxienez ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak lortzea izango dute helburu, inbertsio-estrategiaren elementu lotesleei jarraikiz. Inbertsio jasangarrietan gutxi jota % 40 inbertitzeko konpromisoa ere hartzen du finantza-produktuak.

Produktuak ez du zertan Europako taxonomiarekin bat datorren gutxieneko inbertsiorik egin behar.


Aktiboaren esleipenak aktibo espezifikotako inbertsioen ehuneko adierazten du.

- **Deribatuak erabiltzeak nola bermatzen ditu finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak?**

Finantza-produktu honek ez du inbertsiorik egiten deribatuetan, ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzeko.

Taxonomiarekin bat datozen jarduerak ehunekotan adierazten dira:

- **Negozio-bolumenaren ehunekotan.** Inbertsioen xede diren enpresen jarduera ekologikoetatik datozen diru-sarreraren proportzioa adierazten du.
- **Aktibo finkoko inbertsioaren ehunekotan.** Inbertsioen xede diren enpresek egindako inbertsio ekologikoak erakusten ditu; adibidez, ekonomia berde batera igartzeko egindako inbertsioak.
- **Ustiapen-gastuen ehunekotan.** Inbertsioen xede diren enpresen jarduera operatibo ekologikoak adierazten dituzte.



Zein da ingurumen-helburua duten inbertsio jasangarriak EBren taxonomiara egokitzeko gutxieneko neurria?

Finantza-produktuak ez du Europako taxonomiarekin bat datorren gutxieneko inbertsiorik egiteko konpromisorik.

Jarduera erraztaileei esker, beste jarduera batzuek nabarmen eta zuzenean lagundu dezakete ingurumen-helburu bat betetzen.

Trantsizio-jarduerak oraindik karbono-isurtze gutxiko alternatibarik ez duten jarduerak dira, eta, besteak beste, haien berotegi-efektuko gasen isurtze-mailak bat datoz emaitzarik onenekin.

Jarraian ageri diren bi grafikoetan, berdez adierazita daude EBren taxonomiarekin bat datozen inbertsioen gutxieneko ehunekoak. Ez dagoenez bonu subiranoak taxonomiarekin bat datozen ala ez zehazteko metodologia egokirik, finantza-produktuaren inbertsio guztiak —baita bonu subiranoak ere— dagokien taxonomiara nola egokitzen diren ikus daiteke lehen grafikoan; bigarrenean, berriz, finantza-produktuaren inbertsioen artean bonu subiranoak ez direnak taxonomiara nola egokitzen diren.*

* Grafiko horien ondoreetarako, «bonu subiranoek» esposizio subirano guztiak hartzen dituzte barne.

- **Zein da trantsizio-jardueretan eta jarduera erraztaileetan inbertitzeko gutxieneko ehunekoa?**

Finantza-produktuak ez du trantsizio-jardueretan eta jarduera erraztaileetan gutxienera inbertsiorik egiteko konpromisorik.



Zein da EBren taxonomiarekin bat ez datozen eta ingurumen-helburua duten inbertsio jasagarrien gutxienera?

% 40koa da EBren taxonomiarekin bat ez datozen eta ingurumen-helburua duten inbertsio jasagarrien gutxienera.



Zein da gizartearekiko jasagarriak diren inbertsioen gutxienera?

Finantza-produktuak ez du gizartearekiko jasagarria den gutxienera inbertsiorik egiteko konpromisorik.



Zer inbertsio sartzen dira «Beste batzuk» atalean, eta zer helburu dute? Badago gutxienera ingurumen- edo gizarte-bermerik?

«Beste batzuk» atalean sartzen dira 2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan sailkatutako funtsak, baita funtsaren ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak sustatzen ez dituen zuzeneko inbertsioa, likidezia (eta aktibo baliokideak) eta deribatuen berme-gordailuak ere.

Ez dago gutxienera ingurumen- edo gizarte-bermerik.



ingurumen-helburua duten inbertsio jasagarriak dira, EBren taxonomiaren arabera ingurumenarekiko jasagarriak diren jardura ekonomikoetarako irizpideak aintzat hartzen ez dituztenak.



Izendatu da berriazko indizek finantza-produktu hau eta sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak bat ote datozen zehazteko erreferentziako indize gisa?

E/A.

- ***Nola egokitzen da, etengabe, erreferentzia-indizea finantza-produktuak sustatzen duen ingurumen- edo gizarte-ezaugarri bakoitzera?***

E/A.

- ***Nola bermatzen da, etengabe, inbertsio-estrategia eta indizearen metodologia bat datozela?***

E/A.

- ***Zertan dira desberdinak izendatutako indizea eta merkatuko indize orokorra?***

E/A.

- ***Non aurki daiteke izendatutako indizea kalkulatzeko erabilitako metodologia?***

E/A.



Non aurki dezaket produktuari buruzko informazio gehiago online?

Helbide honetan aurkituko duzu produktuari buruzko informazio gehiago:

<https://www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aurrezkia/fondoak/nazioarteko-errenta-finko->

[mistoa/laboral-kutxa-aktibo-eki-fi](#)